

# BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 5081

*EBAZPENA, 2024ko urriaren 29koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez hutsik uzten baita Administrazio Publikoaren, Zuzenbide Publikoaren edo Administrazio Zientziaren inguruan azterketak eta ikerketak egiteko dirulaguntzen deialdia.*

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariak Administrazio Publikoaren, Zuzenbide Publikoaren edo Administrazio Zientziaren inguruan azterketak eta ikerketak egiteko, merezimendu-lehiaketaren bidez, dirulaguntzak emateko 2024ko ekainaren 5eko Ebazpena onartu zuen.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, eskaera bakarra aurkeztu da, eta Balorazio Batzordeak ebaluatu ondoren, ez du lortu deialdiaren ebazpenaren 6. oinarrian ezarritako beharrezko puntuazioa.

Hori dela eta, honako hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.— Hutsik uztea Administrazio Publikoaren, Zuzenbide Publikoaren edo Administrazio Zientziaren inguruan azterketak eta ikerketak egiteko dirulaguntzen deialdia.

Bigarren artikulua.— Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari; beraz, berorren aurka, gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoan arabera. Horretarako, hilabete bat izango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtso hori ebazpena eman zuen organoari aurkez dakioke edo, bestela, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari. Gora jotzeko errekurtsioa jarri zenetik hiru hilabete igarota erantzuna ematen ez bazaio, errekurtsioa ez dela onartu ulertu beharko da, eta administrazioarekiko auzietako bidera joateko aukera irekita egongo da.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 29a.

IVAPeko Zuzendaritza hutsik dagoelako sinatzen du (maiatzaren 4ko 133/2021 Dekretuaren 6.3 artikulua eta 8.2.f) artikulua).

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Koordinazio eta Kudeaketako idazkaria,  
NAGORE ALBERDI BERASALUCE.